

Liburuak

“ERLIJIOA HAUZIPEAN”

(Joseba Arregi, eusebio osa, joxe azurmendi, larresoro, joan m. torrealday, piarres xarriton)

«Jakin» deritzan euskal aldizkariak, kulturako aldirakaria eta euskeraz emana, liburu baten gisa eta nerrian (232 orri badiu) «Erlilioa hauzipean» titulu duelarik, argitaratu berri dugu.

Bi parte edo atal nagusik, aski desberdinafak, baiña ari berean, ots, erlijioaren polemikan dijoztenak, osatzen dute *Jakin sorta* 5 apariturakoa. Egileen izenak, irakurle, irakurri dituzu, euskal pensatzeleak denak eta XX garren mendeko gizatiari so egiten diotenak, noski.

Egia esan, aspaldidanik, ez zaizkit interesatzen tutik ez teologoak ez teologiari, dela teologi au mendebaldekoa edo sortaldekoa, egungoa edo klasikoa, espekulatiBoa, edo positiboa. Pundu onek ordea ez du esan nai kristau erlijioa ez zaidanik interesatzen, eta geroz eta geiago. «De gustibus non disputandum», zioten erdi-aroko teologoak, beren litan apur bat moldegaitzen.

Alde guttzier ere, liberala naizenez gero, txalogari arkitzen dut bai azken zenbakiaren funtsa, ari ma mamia, au da «Erlilioa Hauzipean», bai ortan murgildurik dauden kezka eta ensegvak, alaitzala egun egungo Euskal erriaren egoeraren azterketak.

Ez dut kritikarik egingo (zer edo zertxobat ikuntzarako bakkarik lerro nagusiaren berri eman baiño, Leenengo atala egungo zenbait teoloiaren azalpenak eta sobietar filosofian erlijio kritikak betetzen dute gaizteza. Ensegubakunak, sintetikoa, dinamikoa, eta gertu gertutik Euskal erriari «ortzez eta agifiez» loturikoak. Ontzabatu merizemendurik asko.

Azken atalean, laburrago noski, eta osagarri edo erasikin bateko gisan, iri artikulat dotoz. Atal onek izen buru au dakarki «Apariz, gaurko «euskal» fedezen, polemika bat». Larresoro-ren «Zalantzan dagoen apaiz horri «izenekon artikuluk, joan zan udu aizenen Zeruko Argian-emana, polemika oni ematen du ala asiera, eta adiskide arteko mutur-jotze biguñi eta lastana. Joan Mari Torrealday-ek bere «Apaiz berriak hauizan» eta Piarres Xarriton-ek bere «Zalantzan nindagon apaiz hunek» erantzun zioten. Zeruko Argia-n Larresoro-ri.

JOSEBA ARREGI

Ezaguna dugu eta dut bereziki. Duela zenbait urte, nere ikasle zan, eta gogoan dut zein eselektuan egoten zan. Berak ez daki, baiña an nonbait egon oi zan, urte batzuk aurretik, bere ania eta niretzat adiskide maite Rikardo. Esan daiteke Joseba Arregik goian dagoen anaiaren esuektatik jaso duela euskal erlijioari dagokion ondorea, ain garbi eta birjina alere. Gaur, aski modan dauden iri teologo liberalen azterketa ematen di gu, zenbait saiets funtsez ukituz eta buruko aize-orratza Euskal Errera, egun egunean, zuzenduaz. Nere uestez, arrazoirik asko badu ontz Arregi jaunak, au dala edo ura dala tradizioa ulertzeko moldea, tradizioan txertaturik daude iri teologo oriek, K. Barth, R. Bultmann eta P. Tillich. Tradizioatik et do laudza edo dago ez berberizterik ez iraultza edo erraboluizorik. Bestalde, «ez tradizio horri, ez kondairak zati hori (XIX garren mendea, dienez) daude gudantik hain urrutik». Laburki Euskal Erriari dagokion ondorioa au da, J. Arregi legez, egungo euskal gizonaren «egoera gogoan hartzea», bere «balintzapen» edo kondizionamtu guztiek. Baiña, zuzen du Arregi-ki: «Giza egoerak ez dira ez hutsetik sortzen, ez zerutik erortzen. Kondaira bilakaera baten barruan daude, bere balintzapen ekonomiko, soziolojiko, politikoa eta historikoekin».

tuaz, ain zuzen, Andoaingo geltokian, jaso zuen bere itzigariko). Euskal Erriko pentsamuntaren bideturtez eta gurutze bide da. Arrazoi fzango duzu, Joseba. Bestalde, gure «nazio gaitea, kondairan integratu nahirik, abertzalearen berbitzean, bide berrietan abiaraztean, sozialista eta marxista ideien jabetzean, nahitaezko utopia eta mesianismoarekin, iterean handirik» gabe, teoloiaren sustrai izan daiteke, are euskal teoloiaren sustrai izan bear du.

Lurra eragia dago, sustrai edo lerroak gizuridik, gozotasun eta zorna asko, eusal teoloiaren art-bola eze eta fruitu-emalle sortu dedin.

Oar bat izenak erabilitzean, arrotzak eta askorentz ez ezagunak, ez ote da egokiago Heideggerren baino Heidegger-en, Hegelengan baino Hegel-engan eta ab, erabiltzeaz?

EUSEBIO OSA

Bere lanak onako izen buru au du: «Bonhoeffer-en erlijioari gabe-kristautasuna».

Ona emen ensegub onen puntu nagusiak. Mundu heldua. Erlilioaren kritika. Apologetikari kritika. Lurra, gure ama. Kristo, munduaren esturktura. Kristauaren tensiozko ibilera. Jainkoaren sufrika-riorean parte hartzea. Besteentzat izatea. Biharko Elizaz hitz erdi.

Bonhoefferen bizitzaren berri emen ondoren, Hitler-en aroan eta mendean, ontan ipintzen du Eusebio Osa-k Ben bi adarreko ardatza, teoloogarren itz idatziaz: «Ka-ko osoa honetan dago: Kristo eta mundu heldua». Gizon helduan nola ager daiteke Jainkoa? Zer eta nor da Jainko ori gizonarentzako? Ez uguo, oio teologo ospatuak, Jainkoaren bila ibili bear, ez «heriotze eta bekatu ordutan, sendo aldiatien eta gizonaren momentu jorrietan baizik».

Gizonaren erdi erdian, zentroan, ipitzi nai du Jainkoa Bonhoeffer-ek, dienez, «Jainkoaren aurrean eta Jainkoarenkin, Jainkori gabe bizi gera». Gizonak Jainkoarekiko ditun artuemanak, mundu elduan, Kristok gurutzetan oika esandako itz aietan biltsen dira: «Ene Jainko, ene Jainko, zergaitik zure esukit utzi nazun».

Jainkoa guregandik oso urbil dago. Badugu errege bidea bereganaliristeko, Kristo erredu, lege eta isplu delarik. Kristoren muga gabeko gurutzea gizonen berbitze izan zan. Lagun urkoaren berbitzean gurutzatuz dagon gizona Jainkoagandik oso urbil dago. Berreganako bidea urkoaren biotzetik pasa oi da eta bear du pasatu.

Eusebio Osaren mintzaira aski garbia eta erraza dugu.

JOXE AZURMENDI

Aipatu berria dugu Osaren lan-ean, azalpen ona baiño naiko «abstraktoa» arkitu dudala, aitortu bear dut. Agian, ez du ikusi Ben teoloogarren ifungo kakorik Euskal Erriarekin lotzeko. Egin beza bakoitzak lan ori, aal dun bat egifiaz.

Joxe Azurmendi, bere azken libuaren bidez eta indarrez, diote, leen mailako euskal intelektuala dugula, egun, gure artean. Ez dut ukazten eta ala balitz, prest nago txupela kendu eta gur egiteko. Dударik ez dago, buru sakonekoa dala, europako ideia mugimuntutan, batpat sobietarren pentsamuntuan, buru berlarri murgildurik jagarika dabilela. Bestalde, une bakoitzean, urrats bat ematean, euskal-erria aurrez aurre dauka, bekoz beko. Gaurko euskal erriari erlijioari artikitzen edo botatzen dian kritikak eta egiten dian era-osoak goren gorenko mailan erlijioari artikitzen edo botatzen dian kritikak eta egiten dian «rasoak goren gorenko mailan berezituak eta epiatuak dakazki. Mila esker, Joxe! Baiña, agian, zu erugabe edo obengabe zera, nj motel eta kokola bai naiz zure pentsamuntua-ulertzeko. Kontuz! ordea, Min- to zelatari eta oartuan, «agian» diot. Egia esan. Zer diozun euskal erriaz, nola edo ala jaso dut, gaizki edo ongi, zuzen edo oker.

Marxismoa XIX eta XXI-gn mende artean

Denbora denak daude beren aurrekon mende. Ta berdin giakume guztiok. «Gizakiek mamitzen dute beren kondaira; baina, ez berek nahi bezala, ezta baraiak aukeratutako noiz-nolokotan ere; aurrera zuzenean daturkariaren arabera baizik, arkitu dutenaren eta tradizioz jaso dutenaren arabera. Izandako gaitziden tradizioa, ametis txar bat antz, astun gertatzen zaito bizi direnen buruari» (K. Marx).

ure XX mende hau ere sarri XIX-garrena besterik ez da bere baruitik. Hain xehetasun askotan erakus ditek. Halako bat, Euskal Erriari, zientzien eta ideologien arteko loturak inajinatzeko modua da. Problema konkretok tratatzean hori mila eratan ageritzen da. Nolanabi ere nahasbide hau ez da berez Euskal Herriko bakarrik. Bakarrik, gure laitan aparteko amorrua duela.

Erakutsi du Garatek, adibidez, marxismoaren zenbait zati zientziari ez baino ideologiari zor zaioa. Ideologia hori erlijioaren, Rousseau-ren ala Hegelen pusketaz osatua dago. Gaur bizitarik ez duen irudipen eta aksioma antzoko presu-putu askorekin. Adibidez:

— Gizona berez ona dela suposamendu ideologiko bat da, zientziarekin ez bait da orain arte berezko antonunik atzeman ahal izan.

— Kondairak helburu bat bete nahi duela, orobat, uste ideologika da, ta ez dago zientziarekin ez probatzerik eta ez fuztaterik.

— Kondaira gurtza funtsean bat dela, kondaira bat hau bere helburuntz doala, helburu hortan gizonaren jatorrizko antonunik garaituko duela: gurtz hau ere —kondaira eskema, alegia— ideologikoa da.

Txarra, ideologia zientziaren oinarrietara pasatzen denean gertatzen da. Eta marxismoarekin hori puntu askotan dago gertatuta. Adibidez: gizonaren berezko antonuna suposatuaz (1), norgaltze edo alienazioaren teoriari tankera jakin bat ematen zaio, eta batez ere zientziaren emari bezala edukiko ez lukean balorazio bat (2); klase burruak sortu ditu erasoquina, bekaizerkia, e.a. Gero gizonaren berezko dirudien aje asko aintzatzat hartu gabe inajinatzen da iraultza osteko gizarteak (3). Edo berdin: berez ontzat harturik, gizonaren gaitz gurtzen iturburutzat jabetzko jotzen da, e.a. Antropologia filosofiko (nahiago bada, mitologiko) batek erabakitzen du zer nola aztertu. (Ik. Garateren Marx et al. Nazioa-n or. 69/71).

Zientziak hain zuzen ideologiatik banatuz, aurreragiten du: Newton-eko filosofiatik matematika banatu zuen, eta Joera honixe jarraiki, Txillardegirik ere ideologia eta zientzia banatuz, bulztatu nahi du. Hori behar-beharrezko dela dudarik ez dago: eta marxismoaz ari-terezkanon puntu-zpuztu neurtu beharko dira eta elkarrengandik apartatu ideologia eta zientzia. Adibidez: arteak duen kondizionamtu soziolarren ezagura gehienbat Marx zor dio zientziari. Baina kondizionamtu hori nolokoa den aztertzen gaurko zientziari Marxek baino hobeto daki, hala-beharrik. Eta badaki, orobat, Marx-ten triakio osagarri ta zuzenketa-riksianko behar duela ere: gaur Marx-en denboran egin zitekeena baino ideologia gutxiagorekin, zientifiko gariago, azterka bait di-teke. (Ik. A. Hauser, *Introducción a la Historia del Arte*, 1969, «Introducción; Objetivos y Límites de la sociología del arte»).

Hau dena halaxe izan arren, badirudi Txillardegirik marxismoaren kondaira bururapena bere kondaira nahi lukeela, eta niri arrazoi-rik ez dagoela iruditzen zait: kondatatu beharrezko ideologiaren eta zientziaren nahasketa da. Txillardegirik berak erakutsi bait du

ongienik, ideologia (berdin mitoa esanda) eta zientzia gizonaren inajinatze praktikoko direla biak, munduari eta kondairari tailuketa bat eman eta bertan orientatzeko. Beraz, ideologia ta zientzia, metodotan elkarrengandik apartatuz eta urrunduaz haina dabilza, beren funtzioetan, beti atzera bateratuz. Bakoitza bere lekuan egotea da beharrezkoa.

Marxismoa modernoa nahi duenak ideologiaren eta zientziaren banakuntza, zientziaren gaurko mailari dagokion neurrian egin beharko du.

Ideologia eta zientzia apartatzeaz gainera, bion arteko zerikusi ere berriksi beharra dago. Zientziak beti ideologia eta mitoa txikitze gomodua. (Gero bere ideologia eta mito berriak sortuz bukatuko badu ere). Ta gaur ere halaxe denez gero, gaurko zientziarik XIX mendeko ideologiei, mitoei eta utopiei eraso die. Izan ere zenbait ideologia tipok zenbait zientzia giroetan ez daduka bizitzerik. Adibidez: zientziak zuzen-zuzen ezin gertutatu egingo du gizonaren berezko antonunaren tesia (zientziak, metodoatirik beragatik ere, ez daduka halako balaitzen ta ezetzapenetara allegatzerik). Baina zientziak darabilzen gaurko datoeikin usantza hura suntsitu egiten da.

Hau da, zientzia eta ideologia apartatu ondoren, marxismoaren baitan dagoen ideologiatik ere, XX mendean bizirik jarraitzerik dadukana eta utzi beharrezkoa berezi beharko dira.

Ez dago XIX eta XX mendeen arteko diferentziak zehazten haserik: zientzian, artean, munduaren egoera sozial eta politikoa. Baina marxismo moderno batez mintzatu aurretik beharrezko litzate mende bion alderetako bat. Na norbait egiteko animatzen den.

Baina argi dago: XX mendea astiro-astiro bere aurrekoaren erapigien esferatik irenez doa. Neurri berean, XIX-garrenean kontra ere badabil. Bi mendean orduko hautsindura hau gurtz radikala da zientzian, teknikan nahiz artean. Musiketan Beethoven, Brahms, Berlioz, Wagner, Verdi betetzen dute XIX mendea. Orf, Strawinsky, Schönberg, Katschaturian edo Stokausanen ondoan entzun ditezke. Arkitekturan ere XIX mendea erromantizismo eta klasizismoaren mende dago: oroit ondongo Parlamento neogotikoa (Ch. Barry), Donostiako katedrala, askatasunaren estatua New Yorken, e.a. Baina seguraksi etenduririk radikalena pinturakoa da. Musiko, arkitekto, pintore banak egin beharko lukete mende bion alderetako zehatzagoa. Batez ere lehenengo Zurgu Mundiarren inguruan izugarriko errealizazioa sozeta da, artean nahiz literaturan, orduko Manifestu pilak agertarazten duenez: errealismo, futurismo, kubismo eta dozerismo. Mende berri baten jaitzako haunrikak, nonbait.

Txillardegik mundu ikuskerako diferentziak oharartzatzen dizkigu Hizkuntza eta Pentsakera liburuaren hitzaurretik beretik: «ikus-puntuua aldatu dugu... Galderak aldatu ditugu batez ere».

Izan ere XIX mendea historikoa da. Ta historismoa, orobat XIX mendeko eboluzionismoaren ideologia merkea bezalaxe, ta konturatu gabe ere, giza narzisismoaren filosofoa da: gure gizontzo hau, ta gure garaixo hau, sekula izandeko gurtziaren tontor eta gailur deklaratzan ditu. Badirudi naturala zuziaki eta kondaira gurtziak gu eta gure egunok sortu beste bereginik ez dutela izan. Aurrerapen sinemes mitiko bat zedukan XIX mendeak. Teknikarena ezeki kulturaren eta artearen kondaira ere progreso eskema hortan-txue sarrazki nahi zuen. Jakina, mundu gurtziko kultura gurtzen gaitetik Europatxo honenaxe ze-

goen beti, nola ez. Bere denbora eta bere Europaz gainera, Autore bakoitzak bere sistima ere laster asko deklaratzan zuren oraindoino-ko aurrebide onren goren-puntu.

Gaurko filosofiek, batez ere esturkturalismoak, ez dakarte halako funtuste eta arrandirik. Europa beste edozein lur baino prestu-ago denik esaten ez litzake ironi ausartuko, ta gure garaiaz, ia-ia «cuálquier tiempo pasado fue mejor» pentsatuko litzake. Esturkturalismoa, gure egunotan modan-edo dagoena aipatzeko, giro berri honen sorkari da. Ta esturkturalismoak giro hau indartu egin du.

Gure problematika asko XIX mendeko mentalidadearen obra da: hizkuntza eta klase burruka, e.a., arazoan inportantzia, beren hortan ez baino, kondaira filosofika baten barruan hartuta bilatzen bait da. Esturkturalismoa-eta, beti kasuistika txikian aritu ordez, problemak horizonte zabalagoetan jartzen dizkigute. Eta problema askorentzat zientziak dadukan askabidea, horizonte berri hauetan berenez itzaltzen ustea besterik ez da. Euskalzaletasunari horizonte itxiki salatzan dizkion sasi-internazionalismoak berak daduzka, hitz handiekien estalria, horizonte karrak: gurtzi hori ez bait da XIX mendeko eurozentrisismoaren teoria ziztagizatailea besterik. Internazionalismo horrek lasai-lasai esan dezake, adibidez, Indiak edo Txinak ez duela kulturarik, Marxek esaten zuen moduan.

Guk hizkuntzarekin-eta darabilgun kasuistika gurtzari, zientziak ez daduka zer erantzunik, zuzenean behintzat. Zientziaren problema baino gehiago bait dira mundu begiesperenak. Balorazio implikatzan dituzte. Ta balorazioak ez dira berez behin ere «zientifiko». Zientziak, gehienez ere, mundu begiesper bat egustan du. Ta zientzian ta filosofien egustasun berri hortan euskalazale izatea «burges kokxor» izaterik ez dela ikusteko haina literatura badago euskeraz, gorago aipatutako Txillardegirenaz ere. Dudarik gabe Txillardegiri bait da gure artean XIX mendearikin kontuak garbitzen gehien ahalegindu zai-guna.

XIX MENDEARI AGURKA

Zaharrenak —eta gazte zahar asko dago— bere hortan tematuko dira. Konbersiorik nekez egongo da: ta paleomarxitek beren leize-zuloetako teoriatan jarraituko dute. Bildur ematen bait du ahian-za izugarrian beti baldatuz do-boa joarlan sartzeko.

Baina gu ere hasi gera XIX mendearikin kontuak garbitzen. Gauza askorekin segitu beharko da. Beste asko abandonatu. Ager- tzen ari diren lanak eta agintuta dauden batzuek oraindik XIX mendeari begira daude, haren kon- taria ari direnean ere. Gerra eta burrukatan joan zitzaigun XIX men- deari ateak itxeari egin zaito.

Ahalegintan atzera begira ibili behara bait dago, batzutan aurre- akeoenak kangrejuak ematen du- te: beaiek bait dira atzera-ka aurre- ateenak. Baina ondokoek, buel- ta hartu, ta XXI-gn mendeari begira desarrollatu ahal izango di- tuzte beren pentsabideak.

Gaurko kritikak, beharbada, XIX mendeko ideologia eta pentsake- ren txiki-zi haundiegia egiten du. Errazio bit da. Orain kondenatu- tako gauza asko goago atzera ber- bitzuko da. Baina bururapen pos- titriko haiek ez zdira lehengo gurt- zua zera izango. Gaur oraindik ba- tez ere kritika nagusi ikusten ba- dugu, bada, ez da batera harri- tzeakoa.

Izan ere, gure askatasun bidean, gaur eguneko lehenengo urratsa, XIX mendearen mendetik askatzea dugu. Hau izan ditek 70-gn ur- teharraren eginkizuna.

Joxe Azurmendi

Baiña, «Filosofia sobietarrean erlijio kritika»-ren ariari ez diot arkitu (oso izankaitu eta azpiran izango du inon ubun) ez muturrrik, ez erdirrik, ez azkenik. Bada esaera bat: «Quod natura non dat, Salamanca non prestat». Bi eratara itzuli oi dut nik latin esaera ori: «Berez ez baddu, Salamankak ez dio emango». Baita beste ontara ere: «Tonto izateko ez dago zertar Salamankara joanik».

Agian esaerak badu zer ikusi- rik asko, ez zurekin, bai nirekin. Nik zure prosa ez dut ulertzen. Ara, jakintza bildua, sakona, arront gaurlotua zure buru-muñetan badagoa, badut sumso. Ortaraiño eldun naiz, ez arantzago ordea. Ain zuzen, atzo gauean, ari nintzala zure lana, besterik gabe, irakurtze, isilune sakonean, itsasoaren urruak lagun nitularik, utzi bear izan nuen, gogo onez, baiña ezinez.

Platon-en «Gorgias» elkarizketa ar- tu nun nere eskutian. Kristala di- rudi. Suaren ondoan eserita da- gon amonaren ipuia. Oso erlati- bista naizenez, naigo dut alde ba- tera itzuli nere kritikan bestera baiño. Auxe esan nai dut, maitea- go dudala ni zeroo oker egotea puntu ontan. Ala badi! Aitarean eta Semearen... garizumako predika- riak bukatu oi dutenez.

Jose Lasa